

Azalak

Erabilera anitzeko eraikin multzoa Gros-eko auzoan

Master Amaierako Lana 2019/2020 - Jonatan Diaz Perez

I. Liburua
Proiektuaren garapena

Sarrera

Master amaierako lan honetan Donostiko Groseko auzoan, merkatu zaharra egondako partzelan garatzen da.

Eraikitzeko era diferente baten inguruan landuko dut, existitu izan diren beste eredu batzuk aztertu eta gero.

Garatutako ereduak, sistema berdinarekin garatu da erabilera guztietarako, baina ideia da erabilera bakoitzak bere itxura izatea, egitura janzten duten azal diferenteak bezala.

Laburpena	
Azalpena	4
Analisia	
Kokapena	6
Kokapenaren analisia:	
Bilakaera historikoa	7
Merkatuaren eboluzioa	8
Eremua	9
Textuingurua	10
Ondorioak	11
Gaur egungo egoera. Oina	12
Gaur egungo egoera. Ebaketak	13
Hirigintza	
Kokapena, mugapen eta azalera	15
Proposamen eta aldaketak	16
Proposamen planoak	
Antolaketa orokorra	17
Plano morfologikoa	18
Erabilera planoak	19
Proiektua	
Helburuak	21
Irizpideak	22
Estrategiak	23
Programa	24
Alderdi teknikoak	25
Proposamen planoak	26

NON

Gros auzoko Nafaro behera plazan. Espazio hau Katalunia eta Txofre plazen artean dago, auzoaren erdialdean.

Espazio honetan Groseko merkatua zegoen, 1995 urtean eraitsia izan zena.

Partzela hau zabalgunearen forma erregular laukizuzena dauka, forma nahiko baldintzatu dezakeena.

ZER

XX mendeko eraikitze eta hiri egiteko era tradizionalari buelta bat ematen diot eraikuntza multzo baten bidez.

Eraikin hauen bidez ez da proposatzen proiektu itxi bat, alderantziz, denboran zehar eraldatua izan daitekeen eraikin multzo bat. Auzoari egitura bat eskaintzen zaio, egitura potentzial bezala. Honen malgutasuna hainbat erabilera jasateko ahalmena emango dio, urteen zehar beharrezkoak izan daitezkeen erabilerak betez.

ZERGATIK

Gaur egungo aldaketa azkarrak direla eta, horrelako modeloak edo proiektuak oso interesgarriak direla iruditzen zait.

Hiriak gero eta eredu jasangarriagoak garatzen saiatzen ari dira, honetarako estrategia batzuk dira errepideak murriztea bizikleta eta garraio publikoa sustatuz, oinezkoen lehentasuna emanez. Honekin baita lagungarria izango da hiri modelo konplexuagoak izatea. Adibidez, etxebizitza, langune, ikasgune eta aisialdi eremuak hurbilago edukitzea hau errazten du.

NORI

Auzoko zein hiriko bizilagunen zerbitzura egongo den egitura diseinatzea izango da helburua.

Honek hauei zerbitzatuko du, bai eraikitako erabileren bitartez, eta baita utzitako hutsuneekin; kontuan izanda inguruan ez daudela espazio estali asko.


Erabiltzaileak urteekin aldatzen joango dira, era berdinean, erabilerak ere aldatu ahal izango dira.

NOIZ

Idea da eraikinak funtzionatu ahal izatea egituraren bizitza erabilgarria ematen duen bitartean. Beraz, eraikinak itxura diferentea edukiko du urteen zehar.

Honen malgutasuna, hainbat erabilera jasan ahal izango ditu, urteen zehar sortutako beharrak asetz.

Analisa



Donostia kantauri itsasoaren itsasertzan dago. Igeldo, eta Ulia mendien artean, Urumea ibaiaz erdibitua. Gipuzkoako hiriburua, 188.190 biztanle dituena. Groseko auzoa Urumea ibaiaren beste aldean dago. Hau mendebalde eta iparraldetik muga naturalak ditu, aipatutako ibaia eta Zurriolako hondartza. Hegoaldean Egiako auzoa eta ekialdean Ategorrieta-Ulia. Auzo hau azken urteetan aisialdi eta komertzioa bilakatu da.

MAL honetan Behe Nafarroa plazako eremua landuko dut, Groseko merkatu zaharra zegoen espazioa, Katalunia eta Txofre plazen artean dagoena. Zabalguneko motako partzela laukiuzen bat.

Groseko merkatua 1995 urtean eraitsi zuten eta honen espazioan azken urteetan eraiki izan diren etxebizitza bloke bat eraiki zuten etxadiaren erdia okupatuz, beste erdian plaza bat utziz. MAL-eko gai ofizial honek proposatzen du bi aukera, gaur egungo egoera hartu, etxebizitza blokea mantenduz edo; merkatua eraitsia izan zen momentu horretako situazioan proiektatzea. Nik bigarren aukera hau hartu dut.



1946 urtea



1956-57 urtea



1983 urtea



1991 urtea



2019 urtea

Donostiko garapen historikoa

Antzinaroa

Antzinarotik, Urgul mendiaren magalean, honen babesean eta itsasoa eta Urumea ibaiatz hornitua, leku oso aproposa zen. K.o. I mendeko erromatarren kokalekuen izatearen jakintza dago.

Erdi Aroa

Donosti 1180 urtean fundatu zuen Antxo Jakituna Nafarroaren erresumaren portua bezala. 1200 urtetik aurrera, Gaztelako erresumaren eskuetan. Orduetik aurrera, erregeak emandako foruak zirela eta, hiri oparoan bihurtu zen, honi esker hiri berreraikia izan zen beti hurrengo mendeetan jasan zituen sei suteen ondorioz. 100 urteetako guda, leinuen gerrak eta Nafarroaren afrantsestazioaren ondorioz XIV. mendearen erdialdean, boterea Donostitik Bilbora mugitu izan zen.

Aro modernoa

1489 urtean hiri berriz ere sute bat jasan zuen, honen ondorioz, hiri harriz eraikitzea erakarri zuen. XV mendean merkataritza hiri bat izatetik plaza militar izatera pasa zen, Pasaia portu bezala edukiz. Aldaketa hau hiriaren ekonomiaren hondatzea erakarri zuen eta okerragoa izan zen Sevilla Amerikarekiko salerosketen monopolioa irabazi zuenean. 1662 urtean Felipe IV Hiri titulua eman zion. 1721 urtean lehenengo aldiz hiri okupatua izan zen frantsesen soldaduen aldetik, 1721 arte.

Groseko auzoaren sorrera

Aro garaikidea

1808 urtean Napoleon-en soldaduak hiri okupatu zuten. 1813 urtean aliatuek hiri sefiatu eta bonbardatu zuten, egun batzuen ondoren, aliatuak hiri hartu eta arpilatu zuten, sute oso larria sortu zuena. Independentzia guda ostean, herritarrek hiri berreraiki zuten eta Donostia Gipuzkoako hiriburu bihurtu zen. Guda karlisten ostean, 1863 urtean, erabaki zen hiriaren harresia eraitsi zuten eta hiri plaza militar izatetik probintziaren hiriburua izatera pasa zen, Cortazar diseinatutako zabalgunearekin hasiz. Urte batzuk geroago, 1894 urtean, Urumea ibaiaren beste aldeko terrenoak orain arte hondartza, baratzak eta eraikin solte eta fabrikak izandakoak, hauen terrenoen homogeneizatze lanak proposatu zituen Tomas Gros.

Gaur egun

1955 urtean, Donostia jasan zuen bigarren zabalguneko prozesua eta inportanteena, Amarako zabalgunea, 1993 urtean bermatu izan zena. Gaur egun hiriaren lehentasunak azpiegituren hobetzea, zaharkitutako auzoen birgaitzea eta hiri hazkunde jasangarria. Gros, bere aldetik, aktibitate komertzial altuko gune batean bihurtu da, taberna gune bezala ere. Bertan dago Zurriolako hondartza, surf egiten dutenek hobeto ezagutzen duten hondartza.

Merkatuen historia laburra

Merkatua soberan ekoiztutako produktuak saldu edo truke egiteko espazio bat zen. **Grezian** agoran hasi zen, postu hauek agoraren inguruko arkupeetan (stoak) jartzen ziren. **Erroman** merkatura plaza nagusitik beste plaza berrietara eramaten da. Bertan hasi ziren ikusten lehenengo "dendak", biltegi batzuk zeintzuk aurralkidean salpostua zuten (macellum). Trajanoren merkatuak 6 solairuetan antolatutako dendez osatua zegoen, gaur egungo zentru komertzialen antzerakoak.

Erdi aroan merkatura berreskuratzen du garrantzia, merkatu internazionalerako ibilbideak sortuz, garrantzitsuenetakoa, zetaren bidea. Orduan baseritarrek hirira joaten ziren eta gurdietan bertan saltzen zuten, hauekin espazioa antolatuz.

Aro garaiakidean, altzairuaren agerpenarekin eraikitzeko material bezala, Cadiz-eko konstituzioan jateko produktuen kontrola edukitzeko, herrigune bakoitzean puntu finko bat eskatzen da, abastos-eko merkatuak. Europar lehenengoetakoak asibidez La Haya-koa da, burdina eta beira erabiltzen dutena moderitate erdu bezala. Espainiar Madril eta Bartzelonan adibidez auzoetan eraiki izan ziren horrelako merkatuak (san Miguel, Sant antoni).

Azkenengo urteetan, merkatu tradizionalak gizartearen aldaketak jasan dituzte, asteko merkatuei konpententzia jasan dute hordutegi finko batekin eta espazio itxi eta eroso bat, zentro komertzialak. Gainera honek merkatura eta aisialdia bateratzen dute. Hauek hiriaren itxura eroso hartzen dute, kotxerik gabeko espazio bat, kale zabalekin, zuhaitzekin etab. Merkatura askoren aztarnak bakarrik oroimenean geratzen dira eraitsiak izan direlako, erabileren uztea eta eraikinaren egokitzeko ahalmenaren faltarengatik.

Gipuzkoa eta Donostiko merkatuak

Gipuzkoan merkatu ardatz potentea egon da historian zehar, hiru herrialdeez osatua: Ordizia, Tolosa eta Donosti.

Aurreko biak gaur egun oraindik funtzionatzen dute. Donostikoak transformazioak jasan dituzte. San Martingo merkatura eraitsi eta eraikin berri bat eraiki zen, la Bretxa-ko merkatura eraldatua izan da eta Grosekoa eraitsi zen. Aurreko biak zentro komertzial batean transformatua izan dira, merkatura lurrazpira pasaz, kalearekiko erlazio zuzen hori moztuz. Tolosaren kasuan, honek ere dauka abastos-eko merkatura, baita eraldatua izan dena. Hemen Euskal Herrian abastoseko merkatuetan erabilitako materialak pisutsuak izan ziren, harria (La Bretxa eta Tolosakoa), baina urteekin bestelakoak eraiki ziren, San Martin, itxura modernista eduki zuen, altzairu eta beirazkoa.

Ordizi eta Tolosakoak merkatu bezala funtzionatzen dute eta hau ez dagoenean, herrirentzat espazio estali bat da.

Merkatuak gaur egun

Azkenengo urteetan merkatu berriei begira, ikusten da hiri handietan merkatu itxiak eraiki edo berreskuratzen ari direla edo turismo/aisialdira egokitzen direla. Baina herri ertain edo biztanleri txikiago dutenetan, hauek espazio estaliak dira, ahalbidetzen duena espazioaren erabilera merkatura ez dagoenean.

Orain hiriak saiatzen ari dira eredu jasangarriagoak garatzen; 80-90-ko hamarkadetan hiri asko zuten itxurak zirela eta, zentro komertzialek hartu zuten hiri idealaren itxura, oinezko kale zabalak kotxe gabe etab. Hirien eredu jasangarri hauek auzoko merkatuen bueltatzea erakarri dezakete.



Ataloko stoa



La Haya-ko merkatura




Ordiziko merkatura



San Martingo merkatura



Celje-ko merkatura



Pompeiako macellum-a



Bartzelonako Sant Antoniko merkatura



La Bretxako merkatura



Tolosako Tinglatuko merkatura



Figueres-ko merkatura



Trajanoren merkatura



Madrilgo San Miguel merkatura



Groseko merkatura



Tolosako merkatura



Rotterdam-eko merkatura

Kokapenaren analisisia

Eremua



Hego fatxada (Gaur egun eraikita dagoen etxadia, eskubian)



Mendebaldeko fatxada



Ekialdeko fatxada




Ipar fatxada

Katalunia eta Txofre plazen artean, aurretik Groseko merkatua zegoen partzela. Partzela hau puntu interesgarri batean dago, bertan ematen diren erabilerak auzo osoan influentzia eduki dezaketena.

Grosen erdialdean dagoen partzela, espazio hau hiru aldeetatik errepidetaz inguratua dago, hauek espaloi ez oso zabalak edukiz. Inguruko kale haueetatik aparte, beste kale bat dago partzelaren erdialdera iristen dena, oinezko kale batetik datorrena.

Auzoaren bihotza bezala uler daitekeen espazio bat da. Honek lehen zegoen merkatuaren erabilera hartu eta honi gehitzen dio auzoari zerbitzatzen dizkion beste erabilera batzuk.



Kokapenaren analisia

Textuingurua

Espazio publikoak


Groseto auzoak 485.500 m² inguruko azalera du. topografia pixkanaka igotzen joaten da Urumea ibaitik Ulia mendirantz eta malda txikiagoa Zurriolako hondartzatik Egiako auzorantz. Azalera honen gehiengoa zabalguneko trama regular batez osatua dago, zabalguneko etxadi tradizionalaz, behe solairua hirugarren sektoreko lokalak eta gainean etxebizitzak.

Bertan auzo eta hiri mailako espazioak daude. Horren arira auzoko espazio publiko nagusien ezaugarri nagusiak aztertu dira.

Analisiaren ondorioak


Auzoan espazio zabalak daude aktibitate diferenteak emateko potentziala daukatena, baina hauetatik gutxi daukate babesari euriarekiko, Donosti bezalako hiri batean bezala beharrezkoa dena.

Gainera, espazio hauek mugatzen dituzten eraikinen erabilerak orokorrean ez daude erlazioan espazio hauekin (tabernetako terrazak orokorrean).




	1.Zurriolako hondartza Azalera: 80.000m ² Babesa: Ez Topografia: irregularra Landaredi: Irisgarria: Ez
	2.Sagües Azalera: 14.500m ² Babesa: Ez Topografia: laua Landaredi: ez Irisgarria: Bai
	3.Zurriolako pasealekua Azalera: 12.000m ² Babesa: ez Topografia: laua Landaredi: zuhaitzak Irisgarria: Bai
	4.Kursaal-eko plaza Azalera: 6.000m ² Babesa: ez Topografia: laua Landaredi: ez Irisgarria: Bai
	5.Katalunia plaza Azalera: 11.600m ² Babesa: ez Topografia: laua Landaredi: Belardi eta zuhaitzak Irisgarria: Bai
	6.del Txofre plaza Azalera: 6.400m ² Babesa: Bai. Arkupeak. Topografia: laua Landaredi: parterreak Irisgarria: Bai
	7.de Zuberua plaza Azalera: 2.300m ² Babesa: ez Topografia: laua Landaredi: zuhaitz eta zuhaixkak Irisgarria: Bai

Gaur egungo egoera



Planoa	Eskala	Orria
Eremuaren oina	1/1.000	11
Kokapena	1/10.000	
Eremuaren ebaketak	1/500	12





Iparraldeko fatxada



Ekialdeko fatxada

Hirigintza



Eremuaren kokapena eta mugak

Gaur egun

Sailekapena: Hiri lurzoru finkatua

Kalifikazioa: a.20 Zabalguneko arrunteko bizitegi lursaila
e.40 Aparkalekuak (sestra azpitik)

Esk. bereziak: Ordena: VII/IV Kale zabal.: >20.1m/<20m>12.01m
Fatx. alt.: 22.5m/19.15m Eraikin. alt.: 25.6m/22.2m
Behe sol.: 4.5m/4.15m Atikoa 2m atzeratuta.

Araudia: Hiri antolamenduko plan orokorra
Hirigintza arau partikularrak. Gros.

Plangintza: Hiri antolamenduko eta birgaitze integratuko plan berezia,
Udalaren ekimenekoa.

Jarduera prog.: Hiri berrikuntzarako Plan Berezia

Hiri. garapen irizp.: *

Proposamena

Sailekapena: Hiri lurzoru finkatua

Kalifikazioa: a.30 Eraikuntza irekiko bizitegi lursaila


Esk. bereziak: Ordena: VII/IV Kale zabal.: >20.1m/<20m>12.01m
Fatx. alt.: 22.5m/19.15m Eraikin. alt.: 25.6m/22.2m
Behe sol.: 4.5m/4.15m
Lerrokaduren aldaketa.

Araudia: Hiri antolamenduko plan orokorra
Hirigintza arau partikularrak. Gros.

Plangintza: Hiri antolamenduko eta birgaitze integratuko plan berezia,
Udalaren ekimenekoa.

Jarduera prog.: Hiri berrikuntzarako Plan Berezia

Hiri. garapen irizp.: *



Gaur egun



Proposamena

Aurrekariak

Kontuan hartu eta aztertutako arau eta planak hurrengoak dira:

- Donostiako hiri antolamenduko plan orokorra (**HAPO**)
- 2. Hirigintza arauak
 - 2.1. Hirigintza **arau orokorrak**.
 - 2.2. Hirigintza esparruen (AU) eta natura esparruen (AN) Hirigintza **arau partikularrak.GROS (GR)**

Arau hauek 2010 urtean onartuak izan ziren. Beraz kontuan hartuta guk gauden situazioa dela merkatu zaharra eraitzia izan zen momentua (1995), gaur egun nire interbentzioa jada plan orokorrean kontsolidatuta egongo zen, gaur ikusten dugun eraikitako etxadia

bezala.

Kontsideratzen badugu aztertutako plana proiektua eraikitzeko

momentukoa dela, egin beharrekoa izango zen **Hiri berrikuntzarako Plan Berezia**.

Eremuaren datuak

Groseko auzoaren erdialdean kokatutako eremua da, Urumea ibaiaren eskubiko aldean. 1995 urteko situazioan jarrita, Groseko merkatu zaharra bota dute eta zabalguneko partzela bat dugu. Partzela GR.02 Gros eremuaren barruan dago.

- Azalera: 8.200 m²

Irizpide eta helburu orokorrak

- a.20 Zabalguneko arrunteko bizitegi lursaila eta e.40 Aparkaleku batu eta erabilerak aldatu a.30 Eraikuntza irekiko bizitegi lursailara.

- Erabilera programa konplexuagoa duen eraikina eraiki eta lehendik zegoen zonifikazioa (etxebizitza eta espazio publikoa) nahastuagoa eta aberatsagoa egin.

- Secundino Esnaola kalea inguruko beste kale batzuk bezala oinezkoentzat egitea, trafiko motorizatua baimenduz baino murriztuz.


* Hirigintza plana garatzeko irizpi-

- 1. Plan Berezia egin eta onartu, **interes publiko orokorrari erreparatuta ekimena dagokion erakundeari egoki iruditzen zaion unean**.

- 2. Zehaztuko den edo diren jardun integratuko esparruetako Hirigintzako Jardun Programa egin eta onartu: Plan Berezia zehazten duen epean.

- 3. Planteatutako antolamendua gauzatu dadin sustatu beharreko gainontzeko hirigintzaproiektuak egin (berdinbanatzekoak, urbanizazioak...): Plan Berezia eta Hirigintzako Jardun Programak zehazten dituzten epeetan.


- 4. Programaziorako bestelako irizpideak, proiektatutako garapeneren gauzatzeari lotutakoak barne: Plan Berezian eta/edo Hirigintzako Jardun Programan zehaztuko dira.



Proposamenaren helburu eta irizpide nagusiak

Proposamen honekin Groseko auzoarentzat gune zentral bat planteatzen da. Helburua da hiri mota berri bat planteatzea, trinkoa, erabilera konplexutasunarekin eta gertukoa.

Eraikinak erabilera diferenteak eman ahal izateko diseinatua izan da, funtzionatzen ez bada, aldatzeko aukera emanez erraztasun maila batekin. Alde batetik, espazio librea, auzoaren dentsitateari arnasa eman eta espazio estali bat emango dio. Bestalde, ekipamendu erabilerak, auzoari zerbitzua emango dio eta baita bertako etxebizitzei.



Lerrokadurak birplanteatu

Groseko zabalguneko partzela honek 3600m² inguruko azalera dauka, 255m-ko perimetroarekin, suposatuko duena kalearekin duen kontaktua oso txikia dela eraikinaren azalarekin konparatuta. Hau ekiditeko, planteatzen dena da auzoarekin kontaktuan dagoen perimetro hau bidertzea, aktibitateei ikusgaitasuna emanez eta permeableagoa eginez.

Espazio publikoa

Groseko auzoan espazio publiko gehienak ez dute euriarekiko babesik. Nik planteatutakoa da eraikina permeablea izatea espazio publikoarekiko, honi aberastasuna eta zerbitzua emateko.


Eraikinak babes hau emango dio espazio publikoari, espazio ekipatuak eta teknikoki prestuak bezala ulertu daitezkeena.

Trafikoa birplanteatu

Auzoaren trafikoa urteekin pixkat murriztuz joan da, oinezkoentzako kaleetan bihurtuz, auzoa jasangarriagoa eginez eta bizilagunentzako erosoagoa eginez.


Prozesu hau jarraitzeko ideiarekin, eremuko Secundino Esnaola kaleko tartea oinezkoiei lehentasuna ematea planteatzen dut, kotxeen bertatik pasa behar bada, abiadura moteltzera behartuz. Honek erraztuko eta konektatuko du espazio hau paraleloan dagoen oinezko kalearekin (San Francisco kalea).

Proposamen planoak



Planoa	Eskala	orri
Eremuko antolaketa orokor	1/1000	16
Hirigintza: plano morfologiko	1/500	17
Hirigintza: erabilera plano	1/500	18





Plano morfologikoaren leienda

--- Eremuaren muga

[E#] Eraikinaren izendapena

Lurzorua erabilerak:

□ Espazio publikoa

Jabetza eta erabilera

■ Jabetza pribatu eta erabilera pribatua

▣ Jabetza pribatu eta erabilera publikoa

□ Jabetza publiko eta erabilera publikoa

Lerrokadurak

Sestra gainean

— Derrigorrezko lerokadura

- - - Gehienezko lerokadura

Sestra azpitik

— Derrigorrezko lerokadura

- - - Gehienezko lerokadura

Altuera eta kotak

S Soto

BS Behe solairua

Goiko solairu kopurua

S+BS+# Altuerak

x #.#.# Sestrak

┆ # ┆ Kotak

Forma eta baldintzak

Eraikina	Eraikigarritasuna	Profila	Lerrokadurak
E1	550 m ² sabai	S+BS+5	-
E2	550 m ² sabai	S+BS+3	-
E3	550 m ² sabai	S+BS+5	-
E4	550 m ² sabai	S+BS+6	-



Erabilera planoaren leienda

- Eremuaren muga
- E# Eraikinaren izendapena

Lurzoruaeren erabilerak:

- Espazio publikoa
- Errepidea
- ▨ Trafiko mugatuko errepidea


Eraikinen erabilerak

- GS Goi solairuetan
- BS Behe solairuetan
- SG Sestraren gainetik
- SA Sestraren azpitik
- GS - Etxebizitzak
BS - Merkatua/Biltegia/Jatetxea
- GS - Bulegoak
BS - Taberna/Komun publikoak
- GS - Etxebizitzak
BS - Liburutegia
- GS - Etxebizitzak
BS - Gaztegune/Hautzaindegi
- SG - Espazio publikoa/Erabilera tertziarioa
SA - Aparkalekua

Eraikina	Solairuak	Erabilerak	Erabilera onartuak	Debekatutako erabilerak
E1	Behe sol. Goi sol.	Merkatua+biltegia Etxebizitzak	*1	*2
E2	Behe sol. Goi sol.	Taberna+komun pub. Bulegoak	*1	*2
E3	Behe sol. Goi sol.	Liburutegia Etxebizitzak	*1	*2
E4	Behe sol. Goi sol.	Gazteg.+haurtz. Etxebizitzak	*1	*2

*1 - Diseinatutako egitura erabilera desberdinak jasateko ahalmenarekin diseinatuta dago. Beraz, edozein erabilera onartzeko aukera duen plataforma bat eskaintzen da.
*2 - Plangintzak debekatzen dituena.

Proiektua



Eraikinaren bitartez auzoari erreferentzi puntu bat ematea da helburu, eraikitzeke beste era bat proposatuz.



Eraikina auzoari eskeinitako egitura bat da, honek izan ditzakeen beharretara egokituz eta merkatua bota eta gero geratzen den solairua antolatuzeko.

Aztertutako eraikuntza modelo jasangarriagoa izateko ideiarekin egin da.

Egitura espazio potentzial bezala

Eraikinak egitura espazial bezala ulertuko dira, hauek bertan erabilera diferenteak emateko aukera emango dutena. Ideia da zorua pilotzea altuera diferenteetan, eskala diferenteetako erabilerak txertatzeko. Egiturak 6,5m libreko altuera du solairu batetik hurrengora gei lauza tekniko (+0,50m), bertatik instalazioak pasa ahal izateko; eta 8,50m eta 10,30m zutabeen artean. Espazio hauek moduluetan banatuko dira, horrela erabilera bakoitzak behar dituenak hartuko ditu. Modulu hauek beraien artean komunikatzeko galeria sistema proposatzen da iparraldeko fatxadan.

Eguzkitzapena aprobetxatzeko, egitura bakoitzak altuera diferenteak edukiko ditu. Egituren arteko hurbiltasuna dela eta planteatzen da egitura batetik bestera pasatzeko pasarelak egotea, era honetan estalki berdeak zuzenean erlazionatuta egongo dira altuera berdinean dauden erabilerekin, honi ahal den ustiapen maximoa ateratzeko.




Aurrekariak

Zabalguneko etxadi modeloak XIX eta XX mendeen hiriak handitze prozesuan zeuden momentuan diseinatutako modeloak dira, nahiz eta hauek garatzen joan diren.


Jada 1900 urte inguruan marrazkietan ikusten diren ereduak planteatu ziren. Marrazki hauek Life Magazine-n argitaratu ziren 1909 urtean.

Habraken - Soportes




Habraken garatutako sistema open building inguruko ideiak garatzen ditu, honi orden bat jarri, dena garatu ahal izateko. Sistema hau hiru ataletan banatu daiteke.


- 1. Euskarria.** Aquella parte de una estructura habitable, sobre la cual el residente no tiene un control individual.
- 2. Modulu bereizgarriak.** Componentes móviles sobre los cuales el residente tiene control individual. Podemos considerar las unidades separables individualmente o en conjuntos. Un diseñador puede hacer una tabla indicando qué elementos son unidades separables.
- 3. Zonak.** Una distribución de zonas es un sistema de zonas y márgenes cuyas posiciones relativas siguen ciertas convenciones.



1. Euskarria




2. Modulu bereizgarriak



3. Zonak


Alfa: barnealde, erab. pribatu, kanpoaldearekin kontaktuan.
 Beta: barnealde, erab. pribatu, kanpoaldearekiko ez du kontakturik.
 Gamma: barne edo kanpoalde, erab. publiko.
 Delta: kanpoalde, erab. pribatu.
 Ertzak: bi zonaldeen arteko espazioa, hauen ezaugarriekin.

Ereduak




Ökohaus. Frei Otto. Berlin

Proiektua hormigoizko hiru altueratako hiru egitura dira, non erosleei eskaintzen zitzaion espazio bat beraien etxebizitzak diseinatzeko. Arkitektoek gida edo baldintza orokor batzuk jarri zituzten multzoa antolatuz eta komunitate izaera potentziatzeko.




Next 21. Osaka Gas Company.


Etxebizitza kolektiboko proiektu esperimentalaren erabiltzaileen bizi erara egokitzen dena. 18 etxebizitza unitate 13 arkitektoez diseinatuak. Hasteko elkarriketa bidezko prozesua. Bigarren fasean diseinuaren helburuak finkatuko dira, euskarri eta unitateak.



Maison Médicale Student Housing. Bruselas


Programa : 20 apartamentu, 60 estudio, 200 logela (apartamentuetan elkartuta) 6 etxebizitza con 18 logekin eta espazio komunitarioak.
 Arkitektoaren eta erabiltzaileen arteko partizipazioa. Bizitzeko era diferenteak azpimarratzen dira ez errepikatuzko etxebizitzaren diseinua eta kokapenaren zentzua eta biztanle bakoitzaren izaera mantentzeko. Trama modulatu baten barruan itxurazko desordena. Iraupen luzerako egitura nabarmentzen da eta barruko aurrefabrikatutako elementuak, bizitza laburragoa dutena.





Zabalguneko etxadi modeloak XIX eta XX mendean hiriak handitze prozesuan zeuden momentuan diseinatutako modeloak dira, nahiz eta hauek garatzen joan diren.


Proiektuaren helburuetako bat da eskala diferentetako erabilerak eman ahal izatea. Egituraren bolumetria eremuari izaera emango dio eta barnean eraikitako modeloak eraikinaren barruan eta auzoarekiko erlazioak definituko ditu.



Egitura produktiboa

Eraikinerako estrategia da altueran oinarri bat emantea espazio aberatsak sortzeko aukera emanez eta eraikinen arteko erlazioak sortu ahal izateko.

Distribuzio aukerak



Horizontala


Distribuzio klasikoa, behe solairuan lokal komertzialak eta etxebizitzak goiko solairuetan.

Bertikala

4 egituretatik, 2 etxebizitzentzat eta beste 2ak lokal komertzialentzako.


Nahasia

Lokal komertzial edo beste espazio hauen kokapena etxebizitzaren artean jarri daitezke.




Eraikin tradizionalak iraunkortasun diferentea daukaten azalaren gainjartzearen emaitza dira, hauek aldatzen diren abidura definitzen dute eraikitze sistema tradizionalak. Eraikin hauek egokitu ahal izateko aukera garestia eta zaila da.


Proposatzen dena da erabilera bat osatzen duten azal hauen iraunkortasunak batuz alde batetik egitura denbora luzerako eta beste batetik instalazioak, itxiturak, eta espazioen banaketak eraikuntza arineko sistemen bidez, errazago eraldatu daitezkeenak.



Egiturak sortutako espazioak moduluetan banatuko dira, erabilera bakoitzak behar dena hartu ahal izateko. Modulu hauek altuera bikoitzekoak izango dira, aukera emanez altuera hau bitan zatitzera.




Egiturak dituzten zabalera ahaleginduko du aireztapen gurutzatua edukitzera. Gainera, zabalera hau dela eta, iparraldeko fatxadan modulu bakoitzera iristeko galeria irekia jartzeko eta hegoaldean eguzkitzapena eta tenperatura kontrolatzeko beste galeria itxi bat jartzea ahalegintzen du, gertatzen den zabalera 9m ingurukoa izanda oraindik.



P-1 Sotoa

Aparkalekua
Komunikazio nukleoa


2814,83m²
80m² (20x4)



P4 Laugarrenengo solairua

Etxebizitzak
Komunikazio nukleoa
Estalki berdea


912m² (41,20x15+49x6)
217,2m² (121,70x3)
517,65m²



PB Behe solairua

Merkatua
Komunikazio nukleoa
Taberna
Gaztegunea
Liburutegia
Biltegia
Komun publikoak


235,70m²
171,60m² (42,9x4)
171,26m²
216,60m²
248,15m²
95,60m²
60,90m²



P5 Bostgarrenengo solairua

Etxebizitzak
Komunikazio nukleoa


912m² (41,20x15+49x6)
128,70m² (42,9x3)



P1 Lehenengo solairua

Jatetxea
Komunikazio nukleoa
Erabilera anitzeko espazioa
Haurtzaindegia
Liburutegia


270m²
171,60m² (42,9x4)
200m²
297,60m²
297,60m²



P6 Seigarrenengo solairua

Etxebizitzak
Komunikazio nukleoa
Estalki berdea


304m² (41,20x3+90,2x2)
121,70m²
1035,30m² (517,65x2)



P2 Bigarrenengo solairua

Etxebizitzak
Komunikazio nukleoa
Bulegoak


912m² (41,20x15+49x6)
217,2m² (121,70x3+95,50)
456,90m² (185,30+271,60)



PE Estalkia

Estalki berdea

517,65m²



P3 Hirurrenengo solairua

Etxebizitzak
Komunikazio nukleoa
Bulegoak

912m² (41,20x15+49x6)
224,20m² (42,90x3+95,50)
456,90m² (185,30+271,60)

Komunikazio nukleoa	Merkatua	Aparkalekua	Solairu bakoitzean 2070,60m ² (517,65x4) izango ditu.
Bulegoak	Taberna	Komun publikoak	
Etxebizitzak	Liburutegia	Biltegia	
Estalki berdea	Gazteg./Hurtz.	Jatetxea	
Erabilera anitzeko esp.			

Proiektuaren alderdi teknikoa hiru zatitan banatzen da: EGITURA, INSTALAKUNTZAK eta ERAIKUNTZA. Aurrerago gai bakoitzari bere sekzioa edukiko du eta proiektuko atal batzuetaz sakonago hitz egiten dela kontuan izanik, orri honetan sarrera orokor bat soilik egin eta proiektu osoaren alderdi aipagarrienak izendatuko dira, ideia orokor bat izateko.

Egitura

Proiektuaren egitura hiru ataletan banatu daiteke. Alde batetik Hormigoizko egitura finkoa eta bestetik erabileren egiturak, nik garatutako proposamenean, CLT panelak; eta azkenik altzairuzko elementuak.

Hormigoizko egitura.

Egitura erabilera diferenteak jasan ahal izateko diseinatua izan da. Solairuak **bi norabidetako lauaz** osatuta daude. Lauza hauek **Holedeck** sistema erabiliz diseinatuak izan dira, honek dituen abantailetakoa bat da hormigoia aurrezten duela, lanean ari ez den hormigoia kenduz. Solairuen artean **6,50m-ko altuera libre**a geratzen da, hau gero bigarren mailako egitura batekin zafitu daitekeena. Lauza hauek sostengatzen dituzten zutabeen artean **8,50 eta 10,30m zabalera libre** dago.

CLT panelak.

Hormigoizko egituraren barruko espazioak erabileretara egokitzeko, bigarren mailako egiturak erabiliko dira, nik **CLT Panelak** aukeratu ditut.

Altzairuzko elementuak.

Elementu hauek eraikinean eta eraikinen arteko komunikazioa bermatzeko elementuak izango dira. Alde batetik, eraikinaren komunikazio bertikalera, altzairuzko **eskailerak eta igogailu** autoportantea sartuko dira. Eskaileraburu batzuk zintzil egongo dira lauazatik eta beste puntu batzuetan lauaz apoiatuko dira. Eskailera estalkira iristerakoan pergola elementu bat egongo da, eskaileraren azkenengo tramo babestuko duena.

Beste aldetik, eraikinak komunikatzeko **pasarela** batzuk egongo dira, estalkiaren mailan, hauek aktibatze eta beste eraikinetako maila berdinekoak espazio komunitario zabala edukitzeko.

Instalakuntzak

Proiektuaren instalakuntzak erabileren arabekoak izango dira. Era honetan erabilera bakoitzak bere beharretara egokitu ditzake erabilerak eta hau aldatzen denean, instalakuntzak birplanteatu daitezke.

Erabilera berriak direla eta, **Irigarritasun, Sute segurtasun, Itxituren estudio termiko, Klimatizazio, Ur hornidura, Ur bero sanitario, Saneamendu, Hondakin biltzea, Gas erregai, Elektrizitate, Argiztapen eta Akustika** eskakizunak bete beharko dira.

Eraikinak erdian duten komunikazio nukleoaren eta pasarelen bidez **irigarritasuna** bermatzen da. Pasarela hauek irteera bezala balioko dute larrialdi kasuan errazago **ebakutzeko** beste eraikin baten estalkira, espazio seguru bezala ulertzen dena.

Erabilera bakoitzak bere **itxitura** propioa izango du, era honetan konfort egoera lortuko da, erabilerari egokituta. Fatxada batetik bestera 12,5m daudenez, argi eta aire naturala bermatuko dira.

Aireztapen diferenteak egongo dira erabileraren arabera, hibridoa, Rooftop-aren bitartez eta mekanikoa.

Klimatizazioa diferentea izango da erabilera bakoitzarentzako, zoru radiante, fan-coil, Rooftop-a, hauen diseinua optimizatuz.

Ura sare orokirretik hartuko da eta eraikinera sartzekoan banatuko da erabilera bakoitzera.

Saneamendu sarea berezia egiten da. **Elektrizitatea** saretik hartuko da.

Eraikuntza

Eraikinaren xehetasun guztiak, hormigoizko egitura izan ezik, **lehorrean** egindakoak dira. Honek ahalegintzen du honen muntai eta desmuntai azkarrago eta errazagoa izatea.

Urbanizazioa

Eremu berri hau Donostiako pabimentuak aztertu eta gero, ondoko plaza Katalunia bezalako pabimentu bat aukeratu da. **Euri urak** kontrolatzeko, perimetroko espaloietako urak errepideetako kanaloietara isuriko dira; eta eraikinaren ingurukoak eraikinak inguratzen dituzten kanaloietara. Kanalo hauek, bi motatakoak dira, **ezkututako kanaloia** eraikinek sarrera daukatenean; eta **legarrez betetakoak**, eraikina fatxadarekin ukitzen den puntuan.

Egitura sistema

Egitura nagusi bat eraikiko da **hormigoizko zutabeak** (50x50zm) eta **bi norabidetako lauaz** (50zm) osatua. Honek argi andiak hartzen ditu, bai zabalera (10.30m eta 8.5m) eta baita altueran (7m solairutik solairura). Egitura nagusi honetaz aparte, **CLT panelen** bidez bigarren mailako egitura bat eraikiko da, erabileren arabera. Bigarren mailako egitura hau independentea izango da lehenengoarengandik, hau oinarri bezala erabiltzen bait du.

Sistema inguratzailea

Proiektua diseinatzeko irizpideak jarraituz, erabilera bakoitzak bere itxiura edukiko du. Era honetan, bakoitzak **kutxa itxi** bat bezala funtzionatuko du, zubi termikoak ekidituz. Hormigoizko egitura fatxadatik aldentzeak lagunduko du aipatutako zubi termikoak ekiditzera eta **fatxada libre** uztera, bakoitzak nahi den erara diseinatzeko. Aukera honek egingo duena da erabilera bakoitzak itxura desberdin bat edukitzea, **collage irudi** bat emago du. **Nik** proiekturako soluzio bat aukeratu dut, **CLT panelak** erabiliz, eta **akaberarako itxurarako, egurrezko listoiak**.

Estalki begetal zapalgarriak planteatzen dira, 40zm-ko lodierako lur kapa batekin.


Barne itxitura eta arotzeriak


Idea da "**bricolage**"-aren bitartez eraikuntzaren idei asko ez duen pertsona batek bere espazioa eraldatu ahal izatea, **eraikuntza arineko** sistemen bitartez.

Erabileren kaxa hauen barnealdea saiatu nahiz espazioak ahalik eta espazio jarraienak izaten. Hauek behar direnean zatitzeko, eskala handiko erabileretan (liburutegi, haurtzaindegi..) funtzio hau **egitura panelak** berak osatuko dute ia bere osotasunean. Eskala txikiko erabileretan (etxebizitzak) barne distribuziorako separazio elementu bezala komunak erabili izan ditut, zeintzuk **egurrezko trasdosatuen** bitartez eraikiak izan direnak.

Proposamen planoak









- ✱ Estatubatua
- ✱ BIE
- ✱ Haina-Salburua
- ✱ Karguak
- ✱ Eskalariak
- ✱ Hainagailu automatikoa
- ✱ Irizkiak
- ✱ Alameda sakagailu

































Iparaldeko altxaera







Hegoaldeko altxaera

Bi altueratan





Iskinako modulua
98m²

Erdialdeko modulua
82,40m²



Altuera batekoa



80,96m²

41,45m²

